BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4889

EBAZPENA, 2012ko irailaren 24koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamena egiteko eta organo honi aurkezteko ardura duen Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.

Ikusi da goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen 2012ko abuztuaren 22ko Agindua.

Agindu horren 12. artikuluak honako hau ezartzen du: alde batetik, Balorazio Batzorde bat osatuko dela aurkezten diren eskabideak eta dokumentazioa aztertzeko, eta ebazpen-proposamen arrazoitu bat egin eta organo honi aurkezteko; eta, bestetik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak Kirol Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela, batzordekide gisa.

Horiek horrela,hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Patxi Mutiloa Aldazabal (Kiroletako zuzendaria).

Batzordekideak:

– Elisabet Altube Bengoa (Kirol Zuzendaritzako arduradun teknikoa).

– Carolina Muro Arroyo (Kirol Zuzendaritzako teknikaria), batzordeko idazkari modura jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 24a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.